TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

# Txostena
# 2005
# Memoria


BLANCANIEVES

| | |
|---|---|
| **Aurkezpena-gutuna** | **5** |
| **Administrazio batzordea** | **7** |
| **2005eko ikuskizunak** | **11** |
| **ZINEBI 2005** | **47** |
| **Kolaborazioak** | **53** |
| **Estatistikak** | **57** |
| **Alokairuan gauzatutako jarduerak** | **67** |
| **Azpiegitura eta zerbitzuak** | **71** |
| **Antzokiko produkzioak** | **75** |
| **Harremanak** | **78** |
| **Esker onak** | **79** |

| | |
|---|---|
| Carta de presentación | 5 |
| Consejo de administración | 7 |
| Espectáculos 2005 | 11 |
| ZINEBI 2005 | 47 |
| Colaboraciones | 53 |
| Estadísticas | 57 |
| Eventos desarrollados en alquiler | 67 |
| Infraestructura y servicios | 71 |
| Producciones propias | 75 |
| Contacto | 78 |
| Agradecimientos | 79 |


AURKIBIDEA
ÍNDICE

A

Hemen gaituzue berriro zuen aurrean aurten ere kontuak emateko. Zer eta nola egin dugun azalduko dizuegu. Emaitzen aurkezpen honek bi helburu ditu. Lehenik eta behin, agerikoena, Antzokiaren titularra den Bilboko Udalaren aurrean eta Bilboko publiko eta herritar guztien aurrean gastatu dugun diru publikoak artea eta kultura zabaltzeko eginkizun soziala bete duela egiaztatzea, izan ere, horretarako utzi zuten gure esku. Bigarren helburua da Antzokian lan egiten dugun guztioi gogoeta eginaraztea, datuak eta emaitzak alderatuz, eta geure buruari galdetuz egin ditugun gauzetatik zein ez genukeen egin behar eta, aitzitik, egin ez ditugunetatik zein egin behar genukeen. Labur esanda, aztertu nahi dugu nola bete dugun publikoki onartu genuen konpromisoa, alegia, jaso dugun euro bakoitza geurea dugun programazio bat, zehatza eta kalitatezkoa egiteko inbertitzea.

Hurrengo orrialdeetan ikuskizun bakoitzari buruzko informazio zehatza aurkituko duzue, bakoitzaren ikusle kopurua, betetako jarlekuen ehunekoak, bakoitzean bildutako dirua, eta beste hainbat xehetasun, eta horiei guztiei esker Antzoki honek 2005. urtean burutu dituen jarduerei buruzko ideia zehatza izango duzue. Aldez aurretik esango dizuet emaitzak onak izan direla. Edo hainbatean pozgarriak, formula eginaren bidez esan ohi dugun bezala. Ikuskizun gehiago eman ditugu eta ikusle gehiago etorri dira horiek ikustera. Poz handiz egiaztatu dugu badagoela publiko bat gure kultur eskaintzaren aurrean positiboki erantzuten duena. Eta aurrekontuari zorrotz lotu gatzaizkio horiek guztiak egiteko.

Beharbada, eskerrak emateko unea dugu oraingo hau. Eskerrak Arriaga Antzokiko Administrazio Kontseiluari burubelarri aritzeagatik eta ondo egindako lanagatik. Eskerrak herri erakundeei eta enpresa pribatuei haien babesagatik gauza gehiago eta hobeki egiteko aukera ematen digutelako. Eskerrak, urteak joan urteak etorri, lantalde eraginkorra eta ekina bilakatu diren Antzokiko langile guztiei. Eskerrak Arriagaren Adiskideei, programazioa zabaltzeko eta arrakasta izan dezan egiten duten lanagatik. Eskerrak artistei edertasun eta adimen lorratz bat utzi dutelako gure agertokian. Eta, batez ere, eskerrak zuei, ikusle zaituztegunoi, bertan egoteagatik eta ekarpen hori jaso eta gordetzeagatik. Zeren eta argitalpen honetan aurkituko ez duzuen datu bat baitago. Alegia, Eskiloren edo Shakespeareren hitz zaharrek, Haendelen edo Prokofieven musikak, edo eskaini dizkizuegun 60 ikuskizunetako edozeinek zuetako bakoitzaren baitan piztu zituzten ideiak, sentimenduak edo zirrarak. Hortxe dago daturik garrantzitsuena ezin neur dezakeen txosten honetako paradoxa, hain zuzen ere, horixe baita gure jardueraren benetako helburua, alegia, arteak eta kulturak gu guztiok gizon-emakume doi bat askeagoak eta jakintsuagoak bihurtzea.

Un año más nos toca comparecer ante ustedes para saldar cuentas. Para explicar qué hemos hecho y cómo lo hemos hecho. Esta presentación de resultados tiene un doble objetivo. En primer lugar, el más obvio, justificar no sólo ante el Ayuntamiento de Bilbao, titular de este Teatro, sino ante el público y los ciudadanos y ciudadanas de esta villa que el dinero público que hemos gastado ha cumplido la función social de difundir el arte y la cultura, misión para la que nos fue entregado. El segundo objetivo es obligarnos a cuantos trabajamos en el Teatro a reflexionar, a comparar datos y resultados, a preguntarnos qué cosas de las que hicimos deberíamos haber evitado y cuales de las que omitimos deberíamos haber llevado a cabo. Cuestionarnos en suma cómo hemos cumplido el compromiso públicamente adquirido de invertir cada euro recibido en elaborar una programación propia, rigurosa y de calidad.

En las páginas siguientes encontrarán información exhaustiva de cada espectáculo, de su número de espectadores, del porcentaje de ocupación, de las recaudaciones obtenidas y otros muchos detalles más, que les permitirán hacerse una idea cabal de las actividades que este Teatro realizó a lo largo del año 2005. Puedo adelantarles que los resultados son buenos. O razonablemente satisfactorios, como con una fórmula ya acuñada solemos decir. Hemos ofrecido más espectáculos y han venido a verlos más espectadores. Hemos sentido la satisfacción de comprobar que había un público que respondía positivamente a nuestra oferta cultural. Y lo hemos hecho ajustándonos a un presupuesto riguroso.

Quizá sea ésta la ocasión de dar las gracias. Gracias al Consejo de Administración del Arriaga por su entrega, dedicación y buen hacer. Gracias a las instituciones públicas y empresas privadas que con su patrocinio nos permiten hacer más y hacerlo mejor. Gracias a todo el personal del Teatro que a largo de todos estos años se ha convertido en un equipo eficiente y entregado. Gracias a los Amigos/Amigas del Arriaga, que tanto hacen por la difusión y el éxito de la programación. Gracias a los artistas que han dejado sobre el escenario un rastro de belleza e inteligencia. Y sobre todo gracias a ustedes, espectadores y espectadoras, por estar allí para recogerlo y conservarlo. Porque hay un dato que no encontrarán en esta publicación. Qué ideas, qué sentimientos o qué sensaciones suscitaron en cada uno de ustedes las viejas palabras de Esquilo o de Shakespeare, la música de Haendel o Prokofiev, o cualquiera de los más de 60 espectáculos que les ofrecimos. Porque, y ahí radica la paradoja de este informe incapaz de medir el dato que más importa, ése es el verdadero objetivo de nuestra actividad; conseguir que el arte y la cultura hagan de nosotros hombres y mujeres algo más libres, algo más sabios.

Jon Sanchez Ibarluzea
Arriaga Antzokiko Presidente Eragilea
Presidente Efectivo del Teatro Arriaga



SERRAT

## ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA

CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA

## ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK
## RELACIÓN DE CONSEJEROS DEL TEATRO ARRIAGA

### BEREZKO PRESIDENTEA
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr. Don Iñaki Azkuna Urreta

### PRESIDENTE ERAGILEA
PRESIDENTE EFECTIVO

Don Jon Sanchez Ibarluzea

### KONTSEILUKIDEAK
CONSEJEROS

Ilma. Sra. Belén Greaves Vadillo

Doña Ana María de Castro Rubalcaba
Doña Nerea Arribas Sabando
Doña Virginia Aguado Arnaiz
Doña Concepción López Ledesma

Don Javier Igartua Ybarra
Doña Ana Isabel Herrero Duro
Doña Beatriz Calvo Fernández
Don Jesús Sanz Salamanca

Don Fernando García de Cortázar
Don José María Oleaga Zalvidea

Don Txema Gonzalo Casal

Don Francisco Javier García Díez

### KARGUA UZTEN DUEN KONTSEILUKIDEAK
CONSEJEROS SALIENTES

Doña Juana María Iturmendi Maguregui
Don Luis Hermosa Santa María

## ARRIAGA ANTZOKIAREN LANGILEAK (05-12-31ean)
## PERSONAL DEL TEATRO ARRIGA (al 31-12-05)

| IZENA<br>NOMBRE | LANPOSTUA<br>PUESTO DE TRABAJO |
|---|---|
| José Ignacio Malaina Sánchez | **Zuzendari Nagusia /** Director Gerente |
| Miren García Bernaola | **Zuzendaritza Laguntzailea /** Ayudante de Dirección |
| Natividad Alonso Alonso | **Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea /** Auxiliar Administrativo de RR.HH. |
| Jesús Mª Rico Hernández | **Administrari Laguntzailea-Kontabilitatea /** Auxiliar Administrativo-Contabilidad |
| Itziar Olalde Rementería | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Fernando Seisas López | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Jon Barañano Iraider | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Javier Peñas Peñas | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| María Teresa Pérez Fernández | **Teknikari Laguntzailea /** Técnico Auxiliar |
| Miguel Calle Herrero | **Areto burua /** Jefe de sala |
| Sara Villa Arroyo | **Aretozaina /** Acomodadora |
| Daniel Díez González | **Aretozaina /** Acomodador |
| José Manuel Sánchez San Juan | **Aretozaina /** Acomodador |
| Antonio Soto Ibáñez | **Aretozaina /** Acomodador |
| Andoni Olivares Ijalba | **Programazio eta Operazioetako Zuzendaria /** Director de Programación y Operaciones |
| Izaskun Etxebarria Goikoetxea | **Programazio Arduraduna /** Responsable de Programación |
| María Dolores del Campo Serrano | **Programazioko Teknikaria /** Técnico Programación |
| Javier Iturrioz Uriondo | **Zuzendari teknikoa /** Director Técnico |
| José Antonio Ochoa Oribe | **Zuzendari teknikoa /** Director Técnico |
| Javier Gorostiola | **Zuzendari teknikoaren Laguntzailea /** Adjunto a la Dirección Técnica |
| Joseba Erkiaga Cilloniz | **Errejidorea /** Regidor |
| Oscar Armendáriz Lucarini | **Jostundegiko Arduraduna /** Responsable Sastrería |
| Antonio de la Cruz Arias | **Elektrikarien Burua /** Jefe Eléctrico |
| Ángel Mª Alonso García | **Argiketaria /** Electricista |
| Carlos Albizuri Martínez | **Argiketaria /** Electricista |
| José Antonio Becerra | **Argiketaria /** Electricista |
| Gorka Ochoa Gorostiza | **Argiketaria /** Electricista |
| Fco. Javier Saiz Blanco | **Argiketaria /** Electricista |
| Carlos Albizuri | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Ibon Andueza Elorza | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Germán Cundín Pérez | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Fco. Javier Izagirre Goikolea | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Joseba Urkizu Villalain | **Tramoiaria /** Tramoyista |
| Darío de Castro | **Tramoiarien Laguntzailea /** Ayudante de Tramoyista |
| Laureano Fernández Iriarte | **Tramoiarien Laguntzailea /** Ayudante de Tramoyista |
| María Ángeles Olea Bilbao | **Zinema Jaialdiko Idazkaria Orokorra /** Secretaria General Festival de Cine |
| Lucía Goitia Calzada | **Administrazioa-Zinebi /** Administración-Zinebi |

## AHOLKULARI ARTISTIKOA
## ASESOR ARTÍSTICO

Lluís Pasqual



EL REY LEAR

## 2005eko IKUSKIZUNAK
ESPECTÁCULOS 2005

## QUEEN

KONTZERTUACONCIERTO

abendua/urtarrila 17 - 16 diciembre/enero

2004. urteari agur esan zion ikuskizun berberarekin hasi dugu 2005. urtea: "Queen". Freddie Mercury, Brian May, Roger Taylor eta John Deacon, Queen rock talde mitikoaren kideek konposatutako kantetan oinarritzen da musikal hau. Urtarrileko lehenengo egunetan, hainbat mila watteko potentziako argi eta soinuz bete zen Arriaga Antzokiko agertokia eta rock-zale sutsuz bertako eserlekuak.

El año 2005 nos saludó con el mismo espectáculo con el que nos despidió 2004: "Queen". Este musical basado en las canciones compuestas por Freddie Mercury, Brian May, Roger Taylor y John Deacon, componentes del mítico grupo de rock Queen, llenó durante los primeros días de enero el escenario del Arriaga de miles de vatios de luz y sonido y las localidades de rockeros incombustibles.

## SPIDER-MAN

ANTZERKIATEATRO

abendua/urtarrila 18 - 16 diciembre/enero

Gazte eta familiez osatutako publiko bati zuzenduta dagoen ikuskizun hau aurrekoarekin batera taularatu da, eta komikietako eta pantailako heroirik famatuenetako bat hurreratu digu. Ekintza nekaezina eta aparteko efektu bereziak izan dira muntaia honen ezaugarri nagusiak; Luis Álvarez ekoizle eta zuzendaria dugu eta interpreteak berriz aktore, akrobata eta espezialista talde bikain bat.

Exhibiéndose simultáneamente con el anterior, este espectáculo dedicado a un público juvenil y familiar nos acercó a uno de los más famosos héroes del cómic y de la pantalla. Una acción incansable y unos extraordinarios efectos especiales fueron las características de este montaje, producido y dirigido por Luis Álvarez e interpretado por un magnífico elenco de actores, acróbatas y especialistas.





# DOCTOR DESEO

urtarrila 18 enero

**KONTZERTUA**CONCIERTO

Doctor Deseo Bilboko taldeak ironiaz betetako bere kantak ekarri zizkigun; eta maitasun eta gorrotozko poesia horiek, zuri-beltzezko argazkiak balira bezala, harremanen alde ezkutua irudikatzen dute, hirietako satsukeriaren, maitasunaren eta marjinaltasunaren alde ezkutua alegia. Rock and roll talde honen kalitatearen berme ditugu bere hamabost urteko bizitza, bere zortzi diskoak, errepidean egindako kilometroak eta batez ere, adinari erreparatu gabe, publikoaren maitasun mugagabea.

El grupo bilbaíno Doctor Deseo nos trajo sus canciones rebosantes de ironía; poesías de amor y odio que, como fotografías en blanco y negro, retratan el lado oculto de las relaciones, de las ciudades y su inmundicia, del amor y la marginalidad. Quince años, ocho discos, muchos kilómetros de carretera y sobre todo el cariño infinito de un público, que no sabe de edades, avalan la calidad de este grupo de rock and roll.



# BALLET BIARRITZ

## La sangre de las estrellas

urtarrila 20 - 21 enero

**DANTZA**DANZA

Mahler, Strauss, Waldteufel eta Minkus-en musikarekin, Miarritzeko Baletaren koreografo eta zuzendari Thierry Malandain-ek Hartz Nagusi eta Hartz Txiki konstelazioen jaiotzari buruzko mito grekolatindarra hartu eta naturaren omenezko dantza kosmiko bat amestu du, horrela graziaz eta freskotasunez betetako ikuskizun hunkigarria erdietsi du; ikuskizun hori Arriaga Antzokiak koproduzitzen du beste batzuen artean.

Con música de Mahler, Strauss, Waldteufel y Minkus, el coreógrafo y director del Ballet de Biarritz, Thierry Malandain, recurre al mito grecolatino sobre el nacimiento de las constelaciones de la Osa Mayor y la Osa Menor para soñar un baile cósmico en honor de la naturaleza, consiguiendo un espectáculo conmovedor lleno de gracia y frescura, que fue coproducido, entre otros por el Teatro Arriaga.





## ÚLTIMAS PALABRAS DE COPITO DE NIEVE

**ANTZERKIA**TEATRO

**urtarrila 22-23** enero

**Heriotzari aurre egin behar dion gorila-filosofo hil-hurren honen azkeneko gogoetak dakarzkigu Juan Mayorgak obra honetan. Azken batez, Copito geu gara eta haren beldurrak, dohainak eta gabeziak ere geureak ditugu. Muntaia dibertigarri, garratz eta sakonean ezkor honen zuzendaria Andrés Lima dugu, Pedro Casablanc, Tomás Pozzi eta Gonzalo de Castro aktoreek maisutasunez interpretatzen dute, eta ekoizlea Animalario da.**

Juan Mayorga nos ofreció en esta obra las reflexiones de este gorila-filósofo que debe afrontar una muerte, que sabe próxima. Copito en fin somos nosotros y sus temores, sus virtudes y sus carencias son las nuestras. Andrés Lima dirigió este montaje divertido, cáustico y en el fondo pesimista interpretado magistralmente por Pedro Casablanc, Tomás Pozzi y Gonzalo de Castro y producido por Animalario.



## GARI

**ESZENA IREKIA**ESCENA ABIERTA

**urtarrila 25** enero

**Musika-hizkuntza zuzen eta beti dotorea darabilela, Garik publikoa liluratzea lortu du, bere trebetasunaz gai delako gozamen ludikorako pieza bihurtzeko ideia kezkagarri bat, amets hautsi bat, maitasun-larritasunak, iraganeko oinazeak… Iradokizun soiletik harantzago gatibatzen gaituen ahots horri esker modu bizkor, erraz eta sinesgarriaz eskaintzen dizkigu bere konposizioak.**

Utilizando un lenguaje musical directo y siempre elegante, Gari consiguió fascinar al público con su talento para convertir en pieza de disfrute lúdico una idea inquietante, un sueño roto, las angustias del amor, los tormentos del pasado… Apoyado en una voz que nos atrapa más allá de la sugerencia es capaz de resolver sus composiciones de un modo ágil, accesible y convincente.



## EL REY LEAR
ANTZERKIATEATRO

urtarrila 27 - 29 enero

**Shakespeare-n tragedia handietako bat dugu honakoa; obra hau hainbat gaiz mintzo da: boterеaz, oinazeaz, anbizioaz, adiskidetasunaz, maitasunaz, zoramenaz. Calixto Bieito zuzendariak badaki klasikoei buruzko ikuskera berri eta erdiragarria ematen, eta obraren protagonista dugun José María Pou gorputzez eta arimaz ari da berealdiko saioa emanez; zalantzarik gabe, luzaro iraungo du muntaia honek zaleen gogoan.**

Una de las grandes tragedias de Shakespeare, una obra que nos habla del poder, el sufrimiento, la ambición, la amistad, el amor y la locura. El montaje dirigido por Calixto Bieito, que sabe aplicar una visión nueva y desgarrada a los clásicos, y protagonizado por un inmenso y entregado José María Pou fue sin duda de los que quedan durante mucho tiempo en la memoria de los aficionados.





## LA ETERNA CANCIÓN
ANTZERKIATEATRO

otsaila 4 - 5 febrero

**Pablo Sorozabal donostiarraren zartzuela hau Bartzelonan eman zen lehenbizikoz 1945. urtean, eta tonu maitagarri eta umorezko batez kontatzen digu nola borrokatzen diren gerra ondoko Madrilgo musikari txiro batzuk bizimodua ateratzeko. Haren musika oparoa da, sentikorra eta batzuetan Pucciniren zantzuak hautematen dizkiogu. Manuel Gas da musika zuzendaria, Ignacio García eszena zuzendaria eta aktoreak Enrique Baquerizo eta Millán Salcedo, besteak beste.**

Estrenada en Barcelona en 1945, esta zarzuela del donostiarra Pablo Sorozábal nos cuenta en tono entrañable y humorístico la lucha por la vida de unos pobres músicos del Madrid de la posguerra, con una música pletórica, sensible y en ocasiones con resonancias puccinianas. Dirigida musicalmente por Manuel Gas y escénicamente por Ignacio García contó entre sus interpretes con Enrique Baquerizo y Millán Salcedo.



## ENRIQUE MORENTE y TOMATITO

**ESZENA IREKIA**ESCENA ABIERTA

**otsaila 8** febrero

**Kritikariak eta flamenkologoak bat datoz: Enrique Moriente cante flamenkoaren figurarik handienetakoa da; nabarmendu beharra dago "buruaren eta bihotzaren" arteko oreka bilatzen duela. Camarón de la Isla zenaren gitarra-jole ospetsua da Tomatito, eta hura zendu ondoren gitarra flamenkoaren bakarlari garrantzitsuenetakoa bihurtu da. Flamenkoaren mito bi hauez aparteko elkarlan batean gozatzeko aukera paregabea izan dugu.**

Críticos y flamencólogos coinciden en reconocer a Enrique Morente como una de las máximas figuras del cante flamenco, destacando su búsqueda del equilibrio entre lo que llaman "la cabeza y el corazón". Tomatito, legendario guitarrista de Camarón de la Isla, se ha convertido desde la desaparición de éste en un solista de guitarra flamenca de la máxima relevancia. Fue una ocasión única poder disfrutar de estas dos leyendas del flamenco en una colaboración única.



## RAFAEL AMARGO Enramblao

**DANTZA**DANZA

**otsaila 10 - 12** febrero

**Dantzari, musikari eta flamenko-kantarien artean hogei lagun baino gehiagok osatutako konpainia baten buru, eta Juan Estelrich-ek zuzendutako ikus-entzunezko muntaian oinarri harturik itzuli zen Arriaga Antzokira Rafael Amargo hiri handien omenezko ikuskizun hau eskaintzeko; abiapuntutzat Bartzelonako "rambla" hartu du eta bertan bat egiten dute flamenkoak, gaur egungo musikak eta kantuak.**

Al frente de una compañía de más de veinte personas, entre bailarines, músicos y cantaoras, y apoyado por un montaje audiovisual dirigido por Juan Estelrich, volvió al Arriaga Rafael Amargo para ofrecernos este espectáculo, homenaje a las grandes ciudades, con la Rambla de Barcelona como punto de partida y donde se dan cita el flamenco, la música contemporánea o la canción.



## COCIDITO MADRILEÑO

ANTZERKIATEATRO

otsaila 13 - 16 febrero

**"Cocidito Madrileño" obraren bilbearen ardatza zuzenean egindako irratsaio bat da, eta 70 pertsonaia baino gehiago taularatzen dizkigu, komedia giroan betiere. Satira politiko dibertigarri honek umore-sena jarri nahi du sen onik ez dagoen tokian, eta bere jatorria izen bereko Radio Euskadiko irratsaioa eta Javier Vizcaino kazetariaren liburua du.**

La trama de "Cocidito Madrileño" gira en torno a un programa de radio realizado en vivo y en directo, donde más de 70 personajes desfilan por el escenario en clave de comedia. Un ejercicio de divertida sátira política, que quiere poner sentido del humor allí donde no siempre hay sentido común, y cuyo origen está en el programa de Radio Euskadi y en el libro homónimos del periodista Javier Vizcaíno.



## EL PRECIO

ANTZERKIATEATRO

otsaila 18 - 27 febrero

**Arthur Miller-en obra hau XX. mendeko klasiko bat da, zalantzarik gabe, eta familiaren etxe zaharra desmuntatu behar duten bi anaiak elkartzearen aitzakiaz, luzaro gorderik egon diren sentimenduak azaleratzeko aukera ematen digu: erresumina, frustrazioa, samintasuna. Juan Echanove, Rosa Manteiga, Helio Pedregal eta Juan José Otegui aktore lanetan ditugula eta Jorge Eines zuzendari dela, "El precio" obrak bete eta hunkitu egin gaitu.**

Esta obra de Arthur Miller, sin duda un clásico del siglo XX, nos ofrece, con el pretexto de la reunión de dos hermanos que deben desmontar la vieja casa familiar, la ocasión para que afloren los sentimientos largamente sofocados: el resquemor, la frustración y la amargura. Con Juan Echanove, Rosa Manteiga, Helio Pedregal y Juan José Otegui, dirigidos por Jorge Eines, "El precio" convenció y conmovió.





# BALLET DE LA ÓPERA DE LYON

DANTZADANZA

## martxoa 3 - 4 marzo

**Arriaga Antzokira berriro etorri den Frantziako konpainia honek Yorgos Loukos du zuzendari 1991. urteaz geroztik, eta ospe handia lortu du mundu osoan. Eskaini ziguten ahaztu ezinezko programak publikoa liluratu zuen bere edertasunagatik, eta programa hori honako obra hauek osatzen dute: "Petite mort", Mozarten musika eta Jirí Kylián-en koreografia dituena, eta "Carmen", Bizet-en obraren gainean Rodion Shchedrin-ek idatzitako musika eta Mats Ek-en koreografia dituena.**

Volvió a actuar en el Arriaga esta compañía francesa, dirigida por Yorgos Loukos desde 1991, y que goza de un reconocimiento mundial. Nos ofrecieron un inolvidable programa, que fascinó al público por su belleza, compuesto por "Petite mort" con música de Mozart y coreografía de Jirí Kylián y "Carmen" con música de Rodion Shchedrin sobre la obra de Bizet y coreografía de Mats Ek.

# LA CELESTINA

ANTZERKIATEATRO

## martxoa 12 - 20 marzo

**"La Celestina" Europako aurreneko eleberritzat jotzen da. 1499. urtean argitaratu zen lehenbiziko aldiz eta haren autorea Fernando de Rojas dela uste da. Protagonista Errenazimentuko emakume bat da, paganoa, indartsua, jakintsua eta lotsagabea. Muntaia bikain batekin iritsi zaigu, izan ere, laudoriorik behar ez duen Nuria Espert du aktore nagusia, eta Robert Lepage zuzendaria, gaur egungo sortzailerik originaletakoa. Carmen del Vallek aktore-zerrendako emakumezko aktore onenarentzako Max 2005 Saria jaso du.**

Publicada por primera vez en 1499 y atribuida a Fernando de Rojas, "La Celestina" es considerada la primera novela europea. Su protagonista es una mujer del Renacimiento, pagana, fuerte, sabia y desvergonzada. Nos llegó en un soberbio montaje protagonizado por Nuria Espert, de quien es innecesario hacer elogios, y dirigido por Robert Lepage, uno de los creadores más originales de la actualidad. La actriz Carmen del Valle ha obtenido el Premio Max 2005 a la mejor actriz de reparto.









# ALICIA

DANTZADANZA

martxoa/apirila 31 - 3 marzo/abril

**Rosángeles eta Edison Valls neba-arrebek sortu eta zuzendutako Ananda Dansa dantza konpainiak Peter Pan eskaini zigun aurreko batean, eta oraingo honetan ikuskizun familiar batekin bisitatzen gaitu, Alizia, Lewis Carrolen pertsonaiaren inguruko ikuskera dantzatu batekin, alegia. Freskotasunez eta sormenez beterik dagoen lan honek lortzen du dantzaren hizkuntzara itzultzea neskatila berezi honen ametsen mundua, ispiluz josia eta hitz jokoz betea.**

La compañía de danza Ananda Dansa, creada y dirigida por los hermanos Rosángeles y Edison Valls, que en otra ocasión nos ofreció Peter Pan, nos visitó ahora con un espectáculo familiar; una visión bailada del personaje de Lewis Carrol, Alicia. Un trabajo lleno de frescura y creatividad donde se logra traducir al lenguaje de la danza el mundo onírico, poblado de espejos, y lleno de juegos de palabras de esta niña singular.

# DOÑA ROSITA LA SOLTERA

ANTZERKIATEATRO

apirila 8 - 11 abril

**García Lorcaren hitz kartsua berriro ere heldu da Arriaga Antzokira "itxurakeria espainiar eta probintzianoaren tragedia" honen eskutik, autoreak berak definitu zuen bezala. Verónica Forquék, Doña Rositaren paperean, maisutasunez interpretatzen du lan hunkigarri hau, aparteko aktore multzo batek lagundurik, Andrea D'Odoricoren eszenografiarekin eta Miguel Narrosen zuzendaritzapean.**

De nuevo la palabra encendida de García Lorca llenó el escenario del Arriaga con esta "tragedia de la cursilería española y provinciana", como la definió el propio autor. Una obra conmovedora que nos llegó magistralmente interpretada por Verónica Forqué, como Doña Rosita, apoyada en un extraordinario reparto y con la escenografía de Andrea D'Odorico y la dirección de Miguel Narros.





# BALLET NACIONAL DE PEKÍN

DANTZADANZA

**apirila 14 - 16** abril

**Izar Gorria baletak (Pekingo Balet Nazionalak) Txinako dantzaririk onenak biltzen ditu, eta hainbat estilotako obrak ditu bere errepertorioan (Txinako dantza tradizionala, gaur egungo dantza edo Txinako dantza klasiko berriztatua eta dantza etnikoa); bere bisitarekin berealdiko aukera eman zigun antzinako zibilizazio horren aberastasunera eta distirara hurbiltzeko.**

El ballet Estrella Roja (Ballet Nacional de Pekín), que reúne a los mejores bailarines de China y que cuenta en su repertorio con obras de los diferentes estilos (danza tradicional china, danza contemporánea o renovación de la danza clásica china y danza étnica) nos ofreció con su visita una oportunidad inmejorable de acercarnos a la riqueza y esplendor de su antigua civilización.



# THE BEST OF MOMIX

DANTZADANZA

**apirila 22 - 24** abril

**Momix Estatu Batuetako dantza konpainiak Moses Pendleton-ek 1980. urtetik egin dizkion koreografiarik onenak ikusteko parada eman digu bere 25. urteurrenean. Nazioarteko kritikak goraipatutako obra honetan berebiziko harmoniaz uztartzen dira argiak, soinua, kolorea eta dantza, eta ikuskizun aparta lortzen dute bere distira ikusgarriagatik eta antzerkiaren magiagatik.**

El 25 aniversario de la compañía de danza norteamericana Momix nos deparó la ocasión de contemplar las mejores coreografías creadas para ella desde 1980 por su director Moses Pendleton. Una obra aclamada por la crítica internacional donde se entretejen con una armonía extraordinaria las luces, el sonido, el color y la danza, consiguiendo un espectáculo definido por su esplendor visual y su magia teatral.



## ADRIANA VARELA

ESZENA IREKIAESCENA ABIERTA

apirila 25 abril

Erresuma Batua, Frantzia, Alemania eta Espainian barrena egindako bira batean bisitatu gaitu Adriana Varela kantari argentinarrak; apika, emakumezkoetan tango artistarik adierazgarriena eta ezagunena da nazioarte mailan, eta bere karrerak sendotasun artistikoa eta kultur adierazpenik jatorrenen bilaketa uztartzen ditu urtetik urtera egindako ibilbidean.

Dentro de una gira que incluía el Reino Unido, Francia, Alemania y España nos visitó la cantante argentina Adriana Varela, posiblemente la artista femenina de tango más representativa y conocida a nivel internacional y cuya carrera va recorriendo año a año un camino donde se entrelazan la solidez artística y la búsqueda de las expresiones culturales más auténticas.



## ROBERTO ZUCCO

ANTZERKIATEATRO

apirila/maiatza 28 - 1 abril/mayo

Gurasoak eta beste hainbat hil zituen Roberto Zuccoren bizitzan oinarriturik, Bernard-Marie Koltések gaur egungo heroi tragiko bat eraiki du, eta poesia biziaz eta errealismo gordinez beteriko lan bat egin du. Zentro Dramatiko Nazionalak ekoitzi duen muntaia artegagarri hau Lluis Pasqualek zuzendu du eta Iván Hermések interpretatu, Carmen Machi eta Mercedes Sampietrorekin batera, aktore multzo bikain baten barnean.

Inspirándose en el parricida y asesino múltiple Roberto Zucco, Bernard-Marie Koltés construyó con él un héroe trágico de nuestro tiempo, creando una obra llena de intensa poesía y descarnado realismo. Un montaje desasosegante producido por el Centro Dramático Nacional, dirigido por Lluís Pasqual e interpretado por Iván Hermés, con Carmen Machi y Mercedes Sampietro dentro de un amplio y excelente reparto.





## EZETZ LEPOA JARRI!!

**ANTZERKIA**TEATRO

**maiatza 3 - 4** mayo

**Izenburu honekin eskaini digu euskaraz Kanpingagas euskal antzerki ekoizpen-etxeak Paul Portnerren obra; gaztelaniaz "Por los pelos" izenburua eman zioten. Endredozko komedia dibertigarri hau ile-apaindegi batean giroturik dago, bertan hilketa bat izan da, eta ikusleak epaile eta parte bihurtzen dira, krimenaren egilea zein den erabaki beharko dute eta. Muntaia hau Pere Planellak zuzendu du eta Euskal Herriko aktore multzo bikain batek interpretatu.**

Con este título nos ofreció en euskera la productora vasca de teatro Kanpingags la obra de Paul Portner que en castellano recibió el de "Por los pelos". Esta divertidísima comedia de enredo, ambientada en una peluquería donde se comete un asesinato, convierte a los espectadores en juez y parte, puesto que deberán decidir quién es el autor del crimen. El montaje estuvo dirigido por Pere Planella e interpretado por un magnífico plantel de actores vascos.



## LÍNEA DE FUGA

**DANTZA**DANZA

**maiatza 6 - 7** mayo

**"Línea de fuga" obraren bidez Philippe Genty sortzaile abangoardistaren azken lana ezagutzeko parada izan dugu, izan ere, bera dugu figura erakargarrienetako bat mundu osoko panorama artistikoan; uko egin dio hitzari bere muntaietan, irudien, argiaren eta mugimenduaren indarra ikertzeko, eta "gu amildegian erorarazteko" leku gisa ulertzen du agertokia.**

Con "Línea de fuga" tuvimos ocasión de conocer el último trabajo del creador vanguardista Philippe Genty, una de las figuras más sugestivas del actual panorama artístico mundial, que ha renunciado en sus montajes a la palabra para investigar la fuerza de las imágenes, la luz y el movimiento y que concibe el escenario como un lugar "para hacernos caer en el abismo".



## CORAL DEL ENSANCHE

KONTZERTUA CONCIERTO

**maiatza 8** mayo

**Ehun urte beteak dituen Masa Coral del Ensanche abesbatza lan eredugarria burutzen ari da genero liriko kutuna guztiengana helarazteko, eta Arriaga Antzokira itzuli da bere orrialde ederren eta goraipatuenetako batzuen antologia bat eskaintzera, abesbatza honen jarraitzaile askoren eta zartzuela zale guztien pozerako.**

La ya centenaria Masa Coral del Ensanche, que viene desarrollando una labor ejemplar de difusión del entrañable género lírico, volvió al escenario del Teatro Arriaga para ofrecernos una antología de algunas de sus páginas más hermosas y celebradas, con gran satisfacción de los muchos seguidores de este coro y de todos los aficionados a la zarzuela.



## TRAMANKULUAK

ANTZERKIA TEATRO

**maiatza 10 - 13** mayo

**José Antonio Portillok bere esperientzia didaktikotik abiaturik sortu du haurrentzako antzerki ikuskizun zoragarri hau. Obra hau 8 metroko diametroa duen biribil baten barnean taularatzen da eta gehienaz 75 ikusle ditu, 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutilak batez ere. Ikuskizun hau Tanttaka Teatroak ekoitzi du eta Aitzpea Goenagak eta Jose Ramon Soroizek interpretatu, Carles Alberola eta Fernando Bernuesen zuzendaritzapean, eta eskola kanpainan izan da ikusgai.**

José Antonio Portillo partiendo de su experiencia didáctica creó este singular espectáculo de teatro infantil, que se representa dentro de un círculo de 8 metros de diámetro con un máximo de 75 espectadores, niños y niñas de entre 8 y 11 años principalmente. Producido por Tanttaka Teatroa con Aitzpea Goenaga y José Ramón Soroiz y la dirección de Carles Alberola y Fernando Bernués fue exhibido en campaña escolar.



## REVOLVER

**ESZENA IREKIA**ESCENA ABIERTA

**maiatza 14** mayo

**Eszena irekiko atalean Revolver aurkeztu zen, rock talderik puntakoenetako bat, Valentzian 1988. urtean sortu zenetik. Egin duten azken lanak "Mestizo" izenburua du, eta aurrekoak baino askoz ere soinu gordinagoa du, gogorragoa, elektrikoagoa, eta kantak amorrazioz, kritika sozialez, maitasunez eta desamodioz beterik daude, rocka ulertzeko modu ezohiko batek lagundurik.**

En el apartado de Escena abierta se presentó Revolver, uno de los grupos de rock más punteros del país desde su creación en Valencia en 1988. Su último trabajo, "Mestizo", se caracteriza por un sonido mucho más crudo, duro y eléctrico que los anteriores, con una serie de canciones llenas de rabia, crítica social, amor y desamor, arropadas por una forma de entender el rock inusual en este país.



## LA TENTACIÓN DE SAN ANTONIO

**GOSPEL-OPERA**ÓPERA-GOSPEL

**maiatza 20 - 21** mayo

**Gustave Flauverten "La tentation de Saint-Antoine" testuan oinarriturik, Bernice Johnson Reagon, eruditu, konpositore, kantari eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokalariak opera-gospel bat konposatu du espiritual beltzetan inspiratutako kantekin eta blues eta jazz ukitu batzuekin; obra hau sei musikarik eta ahots liluragarriak dituzten ia hogei kantarik interpretatzen dute. Robert Wilson dugu ikuskizunaren zuzendaria eta eszenografiaren eta argiztapenaren sortzailea.**

A partir del texto de Gustave Flaubert, "La tentación de San Antonio", Bernice Johnson Reagon, erudita, compositora, cantante y luchadora contra la discriminación racial, ha compuesto una ópera-gospel con temas inspirados en espirituales negros con toques de blues y jazz, que interpretaron seis músicos y cerca de veinte cantantes, todos ellos con unas voces prodigiosas. Robert Wilson dirigió el espectáculo y creó su escenografía e iluminación.

FUNDACIÓN FUNDAZIOA BILBAO 700 - III MILLENIUM

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.





## BALLET PRELJOCAJ

**DANTZA**DANZA

**maiatza 26 - 27** mayo

Berak sortutako konpainiaren buru, Angelin Preljocaj nazioarteko ospe handiko koreografoa da, eta ikusmolde berri bat eskaini digu S. Prokofieven "Romeo eta Julietaren" obrari buruz; Verona hautatu beharrean, klase arteko borrokak markatutako hiri narriatu batean kokatu du historia. Muntaia guztiz eder eta hunkigarri honetako eszenografiaren eta jantzien arduraduna Enki Bilal da, gaur egungo komiki sortzailerik sonatuenetakoa.

Al frente de la compañía por él fundada, Angelin Preljocaj, coreógrafo que goza de una gran reputación internacional, nos ofreció una nueva visión del "Romeo y Julieta" de S. Prokofiev, convirtiendo la Verona tradicional en una urbe deteriorada marcada por la lucha de clases. El bellísimo y conmovedor montaje contaba con la escenografía y el vestuario de Enki Bilal, uno de los más afamados creadores de cómic de la actualidad.



## JOSÉ MERCÉ

**ESZENA IREKIA**ESCENA ABIERTA

**maiatza 28** mayo

Sustrai flamenko sakonak dituen familia bateko seme eta Santiago auzoko jereztarra, José Mercé izan dugu Eszena Irekia sailean. Haren azken lanak direla medio, pribilegiozko toki batean kokatu da kanta flamenkoaren munduan eta gaur egun figura eztabaidaezina bihurtu da. Entzuleak txunditu eta gatibatu ditu "Confí de fua" izenburua duen azken lanean, bere ahots indartsuaz eta sentikortasunaz.

En la sección que denominamos Escena Abierta recibimos a José Mercé, jerezano del barrio de Santiago, miembro de una familia de hondas raíces flamencas, cuyos últimos trabajos le han colocado en un lugar de privilegio dentro del mundo del cante, siendo actualmente una de sus figuras indiscutibles. Con su último trabajo, "Confí de fuá", consiguió con su voz poderosa y su sensibilidad sorprender y arrebatar al oyente.



# ELIZABETH I, EL ÚLTIMO BAILE DE LA REINA

**ANTZERKIA**TEATRO

**ekaina 1 - 4** junio

**Operak eta baletak zuzentzen ia bost urte eman ondoren, tauletara itzuli da Lindsay Kemp, "Flowers", "Udako gau bateko ametsa", "Alice" eta beste hainbesteren moduko ipuin fantastiko berri baten protagonista gisa. Oraingo honetan, antzerki unibertsalaren garai loriatsuenetako bati izena eman zion Ingalaterrako Isabel I.a Erreginaren bizitza eta amodioak aukeratu ditu gaitzat.**

Después de casi cinco años dedicado a la dirección de óperas y ballets, volvía a la escena Lindsay Kemp, para protagonizar un nuevo cuento fantástico en la línea de "Flowers", "El sueño de una noche de verano", "Alice" y tantos otros. En esta ocasión el motivo elegido era la vida y los amores de la Reina Isabel I de Inglaterra, que dio nombre a una de las épocas más gloriosas del teatro universal.



# YAMATO

**ESZENA IREKIA**ESCENA ABIERTA

**ekaina 8 - 11** junio

**Japoniako Nara hirikoa da Yamato, taiko danborren taldea, hau da, japoniar zibilizazioaren sorlekutzat jotzen den hirikoa. Herri askoren kulturan dagoen musika tresna zahar honen soinuak azaldu ezinezko emozio partekatua sortzen du publikoarengan, esperientzia ahaztu ezinezkoa, alegia. Jendearen bihotzeraino iristen da, beharbada jo ere bihotzez jotzen dutelako.**

El grupo de tambores de taiko, Yamato, tiene su sede en la ciudad japonesa de Nara, considerada la cuna de la civilización nipona. El sonido de este antiguo instrumento, presente en la cultura de muchos pueblos, es capaz de provocar en el público una emoción compartida inexplicable, una experiencia difícil de olvidar. Llega directamente al corazón de la gente, quizá porque también está tocado con el corazón.



## EL ZOO DE CRISTAL

**ANTZERKIA**TEATRO

### ekaina 16 - 18 junio

**XX. mendeko antzerki idazlerik handienetakoa, Tennessee Williams-ek familia giro itogarri bat taularatzen digu obra honekin; protagonista giro horretatik alde egiteko premiaren eta bere arreba –herabea eta elbarria, bizitzari aurre egiteko gauza ez dena- bakarrik uzteak eragiten dion harraren artean erabaki ezinean dabil. Agustín Alezzoren zuzendaritzapean, Luis Tosar, María Botto, Juan Carlos Vellido eta Cristina Rota aktoreek mamitu dute obra bikain hau.**

Tennessee Williams, uno de los grandes autores de teatro del siglo XX, nos ofrece en esta obra la evocación de un mundo familiar asfixiante, donde el protagonista se debate entre la necesidad de abandonarlo y el remordimiento por dejar sola a su hermana, un ser tímido y tullido incapaz de hacer frente a la vida. Luis Tosar, María Botto, Juan Carlos Vellido y Cristina Rota dirigidos por Agustín Alezzo pusieron en pie esta espléndida obra.





## LA VERBENA DE LA PALOMA

**ZARTZUELA**ZARZUELA

### ekaina 24 - 25 junio

**"La verbena de la Paloma" ospe handiko zartzuelak itxi du aurtengo lehen sei hilabeteetako programazioa. Sortzetik beretik kale antzerkian jarduteagatik nabarmendu den Comediants antzerki konpainiak, muntaia honen egileak, ezin izan dio eutsi agertokian sortutako jaia hemen ondotxoan dugun Plaza Barrian jarraitzearen tentazioari, eta bertan berbenako protagonista izateko aukera izan zuen publikoak.**
**Bilbao Orkestra Sinfonikoaren eta Bilbao 700 Fundazioaren lankidetzarekin.**

La muy popular zarzuela "La verbena de la Paloma" cerró la programación del primer semestre del año. Comediants, compañía teatral que desde su fundación se ha distinguido por su dedicación al teatro de calle y creadora de este montaje, no se resistió a continuar la fiesta creada en el escenario en la cercana plaza Nueva, donde el público pudo ser protagonista de su propia verbena.
Con la colaboración de la Bilbao Orkestra Sinfonikoa-BOS.

FUNDACIÓN FUNDAZIOA BILBAO 700 - III MILLENIUM

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



## LAUAXETA

ANTZERKIATEATRO

ekaina 26 junio

**Esteban Urkiaga "Lauaxeta" euskal olerkariaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldien artean, jendeak parte har dezan taxututako musika eta antzerki ikuskizun bat aurkeztu zen –150 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute-, Carlos Panera dramaturgiaren arduradun eta zuzendari zela. Ikuskizun honek euskal poesiaren berriztatzaile garrantzitsuenetako baten bizitzaren eta heriotzaren gaineko gainbegiratu hunkigarria eskaintzen digu.**

Entre los actos celebrados en conmemoración del centenario del nacimiento del poeta vasco Esteban Urkiaga "Lauaxeta" se representó este espectáculo básicamente musical y teatral construido para la participación popular –más de 150 personas intervinieron en él– con la dramaturgia y dirección de Carlos Panera. Un emocionante repaso a la vida y muerte de uno de los más importantes renovadores de la poesía en euskera.



## MONTY PYTHON

ANTZERKIATEATRO

abuztua 20 - 29 agosto

**Producciones Yllana eta Imprebís, inprobisazioan eta antzerki ez testualean espezializatutako umorista talde bi, Ingalaterrako Monty Python talde mitikoaren esketxik onenetan oinarritutako ikuskizun hau eskaintzeko elkartu ziren; duela hamarkada batzuk, Monty Python taldeak harri eta zur utzi zuen mundu osoa barrez lehertzeko moduko bere umore-sen burugabe, surrealista eta biziki originalarekin; oraingo honetan zuzenean ikusteko parada izan dugu espainierazko jatorrizko bertsioan eta azpitituluri k gabe.**

Producciones Yllana e Imprebís, dos grupos de humoristas especializados en la improvisación y el teatro no textual, se reunieron para ofrecernos este espectáculo basado en los mejores sketches del mítico grupo inglés Monty Python, que asombró al mundo hace unas décadas con su desternillante, absurdo, surrealista y originalísimo sentido del humor, permitiéndonos seguirlo en versión original española, sin necesidad de subtítulos.



## EL GRADUADO

ANTZERKIATEATRO

**abuztua/iraila 23 - 11** agosto/septiembre

**Pantailan Dustin Hoffman hasiberriak eta Anne Bancroft ahaztu ezinezkoak interpretatu zizkiguten gazte graduatu berriaren eta auzoko neskaren amaren arteko amodio kartsu eta adulteriozkoak, eta kantuz Simon eta Garfunkelek eman zizkiguten; bada, oraingo honetan, Ángela Molinak ekarri dizkigu antzerkian egin duen lehenbiziko saioan, Olivia bere alaba eta Juan Diaz lagun dituela, eta Andrés Limaren zuzendaritzapean, munduko agertoki guztiak zeharkatu dituen bertsio batean.**

Los tórridos y adulterinos amores del joven recién graduado y la madre de la chica de al lado, que en la pantalla interpretaron un principiante Dustin Hoffmann y una inolvidable Anne Bancroft y cantaron Simon and Gargunkel, nos llegó al teatro con una Ángela Molina en su primera incursión teatral, acompañada de su hija Olivia y de Juan Diaz con la dirección de Andrés Lima, en una versión que ha recorrido todos los escenarios mundiales.

## ORQUESTA SINFÓNICA DE ACORDEONES DE BILBAO

**KONTZERTUA**
CONCIERTO

**iraila 17** septiembre

**1963. urtean Josu Loroño maisuak sorturik eta instrumentu honen musikari birtuosoek osaturik, Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoak bere disko berria aurkeztu digu: "De norte a sur", RTVE zigiluarekin koproduzitua. Gaur egun, Amagoia Loroño, sortzailearen alaba, da orkestraren zuzendaria eta haren errepertorioa etengabe berritzearen arduraduna.**

La orquesta Sinfónica de Acordeones de Bilbao fundada en 1963 por el maestro Josu Loroño y compuesta por músicos virtuosos de este instrumento nos presentaron su nuevo trabajo discográfico "De norte a sur" coproducido con el sello de RTVE. La Orquesta está dirigida en la actualidad por Amagoia Loroño, hija del fundador y responsable de la renovación constante del repertorio de la orquesta.







## SOLAS

ANTZERKIA**TEATRO**

iraila/urria 23 - 2 septiembre/octubre

1999. urtean Benito Zambranok publiko handia txunditu eta hunkitu zuen "Solas" izenburuko bere filmarekin; gizaki hauen abentura apalean elkartasuna, samurtasuna, ulerkortasuna eta onberatasuna agertzen dira. Antzerkiak bereak dituen berotasunetik eta hurbiltasunetik ikusi ahal izan dugu historia hau Lola Herrerari (aktore protagonista onenarentzako Max 2005 Saria), Natalia Dicentari eta Carlos Álvarez-Novoari esker, José Carlos Plazaren zuzendaritzapean.

En 1999 Benito Zambrano con su película "Solas" consiguió sorprender y emocionar a un amplísimo público con la aventura modesta de estos seres humanos en la que aflora, solidaridad, ternura, comprensión y bondad. Una historia que hemos podido ver desde el calor y la proximidad que sólo da el teatro, gracias a Lola Herrera (Premio Max 2005 a la mejor actriz protagonista), Natalia Dicenta y Carlos Álvarez-Novoa con la dirección de José Carlos Plaza.



## LA ORESTIADA

ANTZERKIA**TEATRO**

urria 3 - 4 octubre

Eskilok duela ia bi mila eta bostehun urte lehenbizikoz eman zuen antzezlan hau Carlos Tríasen bertsioan eskaini digute oraingoan, jatorrizko testuaren indar dramatikoa eta ezbai morala bere osoan gordetzen dituela, horrela antzerkiaren iturrietara hurbildu gaituzte ikuskizun bizi eta moderno honekin, Mario Gasen zuzendaritzapean, eta Constantino Romerok, Emilio Gutiérrez Cabak eta Vicky Peñak interpretaturik aktore multzo bikain batean.

Esta trilogía teatral, que Esquilo estrenó hace casi dos mil quinientos años, nos fue ofrecida en una versión de Carlos Trías que conserva la fuerza dramática y el dilema moral del texto primitivo, logrando acercarnos a las fuentes mismas del teatro con un espectáculo vivo y moderno dirigido por Mario Gas e interpretado por Constantino Romero, Emilio Gutiérrez Caba y Vicky Peña, dentro de un espléndido reparto.



## A ELECTRA LE SIENTA BIEN EL LUTO

ANTZERKIA TEATRO

urria 6 - 7 octubre

**Eugene O'Neill, Estatu Batuetako antzerkiaren aitatzat jotzen da, eta oraingo honetan Elektraren mitoa birsortzen du; "Orestiadan" agertzen zen mito hau dagoeneko, izan ere, historia honetan adulterioa, hilketa, mendekua eta erreprimitutako nahikariak nahasten dira, eta azken batez klasiko grekoaren berrikuspen honek ariketa kultural aparta egiteko aukera eman die ikusleei: mito honetara bi ikuspuntutik hurbiltzeko parada egun gutxiren bueltan. Emilio Gutiérrez Cabak aktore-zerrendako aktore onenarentzako Max 2005 Saria jaso du.**

Eugene O'Neill, considerado el padre del teatro norteamericano, recrea en esta obra el mito de Electra, ya presente en "La Orestiada", con esta historia de adulterio, asesinato, venganza y deseos reprimidos, que supone una revisión del clásico griego y que ofreció a nuestros espectadores la posibilidad de un magnífico ejercicio cultural: acercarse a ese mito desde un doble punto de vista con la distancia de pocos días. El actor Emilio Gutiérrez Caba ha obtenido el Premio Max 2005 al mejor actor de reparto.



## L'EUROPE GALANTE

OPERA BALETA
ÓPERA BALLET

urria 8 octubre

**Bilboko jarraitzaile askoren gozamenerako Arriaga Antzokira itzuli da William Christie, barrokoan espezializatutako klabezinjole aparta, zuzendaria eta musika ikertzailea. Oraingo honetan, Ambronayko Europar Akademia Barrokoaren buru etorri zaigu eta André Campraren obra eskaini digu kontzertu erdiantzeztuaren bertsioan, bertan frantsesen, espainiarren, italiarren eta turkiarren maitasun ohiturei gainbegiratu bat ematen diela.**

Para gozo de sus muchos seguidores bilbaínos volvió a nuestro escenario William Christie, el gran clavecinista, director y estudioso musical, especializado en el barroco. Al frente en esta ocasión de la Academia Barroca Europea de Ambronay nos ofreció en versión concierto semi-escenificada esta obra de André Campra donde se hace un repaso a las actitudes amorosas de franceses, españoles, italianos y turcos.

FUNDACIÓN BILBAO 700 - III MILLENIUM FUNDAZIOA

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



# EL LINDO DON DIEGO

ANTZERKIATEATRO

urria 11 - 12 octubre

**Gizonen lakrikunkeria, disimulatua edo agerikoa, beti egon da eta beti izan da lilura edo iseka iturri. Azken hau dugu, bada, Agustin Moretoren komedia barre-eragile honen kasua, eta bertan XVII. mendeko "gizon politak" irudikatzen dira. Rafael Perez Sierraren bertsio honetan Fernando Conde dugu protagonista, eta Denis Rafter zuzendaria. Modan jarraitzen duen klasiko baten komikotasun guztiaz eta poesia liriko garbiaz gozatzeko parada eman digu.**

La coquetería masculina, disimulada o evidente, nunca ha dejado de existir y de ser objeto de fascinación o mofa. Este último es el caso de esta hilarante comedia de Agustín Moreto, donde se retrata a los "lindos" del siglo XVII. Protagonizada por Fernando Conde, en versión de Rafael Pérez Sierra, y dirigida por Denis Rafter pudimos disfrutar con ella de la comicidad y la acendrada poesía lírica de un clásico que sigue de moda.



# SALIR EL AMOR DEL MUNDO

ZARTZUELA BARROKOA
ZARZUELA BARROCA

urria 15 octubre

**Une gorena XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran jo bazuen ere, zartzuelak badaude XVII. mendetik ere. Garai hartakoa dugu (1696) Sebastián Durónen obra, eta kontzertu erdiantzeztuaren bertsioan eskaini ziguten Música Ficta Orkestrak eta Civitas Harmoniaeko Abesbatzak eta bakarlariek, Raúl Mallavibarrena sortzaile eta zuzendaria buru zutela; horrela, aukera paregabea eman diete zaleei erakargarria bezain ezohikoa den errepertorio honetara hurbiltzeko.**

Aunque su gran auge se produjo durante los siglos XIX y comienzos del XX, zarzuelas existen desde el XVII. De esta época (1696) es la obra de Sebastián Durón, que nos ofreció en versión concierto semi-escenificada la Orquesta Música Ficta y el Coro y los solistas de Civitas Harmoniae, con su fundador y director Raúl Mallavibarrena al frente, permitiendo a los aficionados acercarse a un repertorio tan sugestivo como infrecuente.

FUNDACIÓN FUNDAZIOA BILBAO 700 - III MILLENIUM

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



# MIKEL URDANGARIN
urria 16 octubre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Mikel Urdangarin gure paisaia musikalaren konposatzaile garrantzitsuenetako bat dugu eta geure herriko autore-kantaren tradizioaren oinordeko naturala. Talde bikain baten laguntzarekin soinu orekatua eta joria lortu duela, "Dana" izenburua daraman bere azken diskoa aurkeztu digu, benetako mugarri bat bere karrera artistiko eta pertsonalean.**

Mikel Urdangarin es uno de los más relevantes compositores e intérpretes de nuestro panorama musical y el heredero natural de la tradición de la canción de autor en nuestro país. Acompañado por una magnífica banda, con la que ha conseguido un sonido equilibrado y rico, nos presentó su último disco "Dana", que supone un punto de inflexión en su carrera artística y personal.



# SERRAT 100x100
urria 18 - 19 octubre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Bere bizitza profesionalean parentesi bat egin ostean, Joan Manuel Serrat taulatura itzuli da eta ez du hutsik egin Arriaga Antzokiko hitzorduan, izan ere, leku guztiak bete ziren. Barne-barneko aurkezpen batean, gitarra eta Ricardo Mirallesen pianoa lagun zituela, poeta, musikari eta interprete handi honek bere kanten eta poesiaren mamiaz gozatzeko aukera eman zigun. Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Arloarekin lankidetzan.**

Tras un paréntesis en su vida profesional, Joan Manuel Serrat reapareció sobre los escenarios y no podía faltar a su cita con el Arriaga, cuya capacidad abarrotó. En una presentación íntima, arropado tan sólo por su guitarra y el piano de Ricardo Miralles, este entrañable poeta, músico e interprete nos permitió disfrutar del núcleo mismo de sus canciones y de su poesía.
En colaboración con el Área de Cultura y Euskera del Ayuntamiento de Bilbao.



## CELEBRACIÓN (Festen)

ANTZERKIA TEATRO

urria 21 - 22 octubre

**"Celebración" dogma film bat da; 1998. urtean pantailaratu zuten lehenbizikoz. Antzerkirako bertsioa Londresen estreinatu zen eta guri Teatre Romea konpainiaren muntaia bikain baten eskutik iritsi zaigu; konpainia honek obra handiak eskaini dizkigu urtero: "El rey Lear", "La ópera de cuatro cuartos", "Macbeth" edo "La vida es sueño"; oraingoan publikoa inarrosi du "Celebración" izenburua daraman tragedia familiar honekin, izan ere, tragedia hau are izugarriagoa da umore tanta batzuekin zerbitzatu digute eta.**
**Bilbao Antzerki Dantza Jaialdiarekin lankidetzan.**

"Celebración" fue un film dogma estrenado en 1998. Su versión teatral estrenada en Londres y que a nosotros nos llegó en el extraordinario montaje de la Compañía Teatre Romea, que una temporada tras obra nos ha ofrecido grandes obras como "El rey Lear", "La ópera de cuatro cuartos", "Macbeth" o "La vida es sueño" hizo estremecer al público con esta tragedia familiar, tanto más terrible por las gotas de humor con que nos es servida.
En colaboración con el Bilbao Antzerki Dantza, BAD.

## EL FESTÍN DE LOS OLVIDADOS

ANTZERKIA TEATRO

urria 24 octubre

**Gaitzerdi konpainiak "El festín de los olvidados" ikuskizunaren lehenbiziko emanaldia eskaini digu Bilbao Antzerki Dantza Jaialdiaren barnean; Kepa Ibarrak idatzi eta zuzendu du muntaia koral ireki, fresko eta dinamiko hau. Antzerki mota hau ezagutzeko eta gozatzeko parada izan dugu, izan ere, antzerki hau ez da erabat konbentzionala, baina konpromiso handia du antzerki arloko bilaketa eta ikerketarekin.**
**Bilbao Antzerki Dantza Jaialdiarekin lankidetzan.**

La compañía Gaitzerdi presentó en estreno absoluto dentro del Festival BAD Bilbao el espectáculo "El festín de los olvidados", un montaje coral, abierto fresco, dinámico, escrito y dirigido por Kepa Ibarra. Una posibilidad de conocer y disfrutar de un tipo de teatro menos convencional y más comprometido con la búsqueda e investigación teatrales.
En colaboración con el Festival Bilbao Antrezki Dantza, BAD.







## BOS & THE SWINGLE SINGERS

urria 26 octubre

**KONTZERTUA**CONCIERTO

**Ward Swingle-k 1963. urtean sortu zuenetik, kantari talde honek 40 urte baino gehiago daramatza publikoa gozarazten "a capella" egiten dituzten interpretazioekin zein munduko orkestra nagusiek lagundurik. Oraingo honetan, hainbat autoreren lanak eskaini dizkigute beren programan, Bilbao Orkestra Sinfonikoa-rekin eta Juanjo Menaren zuzendaritzapean: Chick Corea, Rodgers/Hart, Duke Ellington, Cole Porter eta Lennon/McCartney, besteak beste.**

Desde su fundación en 1963 por Ward Swingle este grupo de cantantes llevan más de 40 años haciendo las delicias del público con sus interpretaciones "a capella" o acompañados de las principales orquestas del mundo. En esta ocasión, con nuestra Bilbao Orkestra Sinfonikoa BOS dirigida por Juanjo Mena, nos ofrecieron un programa con obras de Chick Corea, Rodgers/Hart, Duke Ellington, Cole Porter y Lennon/McCartney, entre otros.

BOS Bilbao Orkestra Sinfonikoa

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Arriaga Antzokiak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak lankidetzan antolatutako kontzertua.**

Concierto en colaboración Teatro Arriaga y Bilbao Orkestra Sinfonikoa.



## GELABERT AZZOPARDI CIA. DE DANSA

**DANTZA**DANZA

urria 27 octubre

**Cesc Gelabert egungo dantza espainolaren koreografo eta dantzari garrantzitsuenetako bat da. 1980. urtean hasi zen lankidetzan Lydia Azzopardi, dantzari, koreografo, irakasle, diseinugile eta estilistarekin. 1986. urtetik hona, haien izenak daramatzan konpainiak 15 muntaia eskaini dizkigu, eta hemen aurkeztu duten lanean bezala, agerian jartzen dituzte berrikuntzarako grina, zehaztasun estetikoa eta emaitzen distira. Gizonezko dantzari onenarentzako Max 2005 Saria jaso du. Bilbao Antzerki Dantza Jaialdiarekin lankidetzan.**

Cesc Gelabert, uno de los coreógrafos y bailarines más relevantes de la danza contemporánea española, comenzó en 1980 su colaboración con Lydia Azzopardi, bailarina, coreógrafa y profesora, además de diseñadora y estilista. Desde 1986 la compañía que lleva sus nombres nos ha ofrecido quince montajes, que como el presentado, ponen de manifiesto su afán de innovación, su rigor estético y la brillantez de sus resultados. Ha recibido el Premio Max 2005 como mejor intérprete masculino de danza.
En colaboración con el Festival Bilbao Antzerki Dantza BAD.



## HAMELIN

ANTZERKIATEATRO

urria 28 - 30 octubre

Pederastia kasu baten inguruko salaketa bat argudio gisa erabilirik, eta "Hamelingo txirularia" ipuinarekin poetikoki loturik, ikuskizun honek haurrak kalean abandonatzen dituen gizarte bat islatzen du eta tolesgabetasunaren manipulazioaz eta gure zibilizazioaren miseriaz mintzo zaigu. Obra honek, ekoizleek, Juan Mayorga autoreak eta Andrés Lima zuzendariak Antzerkiko Max Sari bana merezi izan dute 2005. urtean, haien kalitatearen eta arrakastaren adierazgarri.
Bilbao Antzerki Dantza Jaialdiarekin lankidetzan.

Utilizando como argumento una acusación sobre un caso de pederastia y vinculado poéticamente al cuento de "El flautista de Hamelin", este espectáculo nos habla de la manipulación de la inocencia y la miseria de nuestra civilización en una sociedad que abandona a los niños. Este espectáculo, sus productores, su autor Juan Mayorga y su director Andrés Lima han merecido sendos Premios Max de Teatro 2005, prueba de su calidad y aceptación.
En colaboración con el Festival Bilbao Antzerki Dantza, BAD.





## BLANCANIEVES

DANTZADANZA

azaroa 3 - 6 noviembre

Arriaga Antzokiak lehen mailako ikuskizun artistikoa eskaini dio bere publikoari: "Blancanieves" dantza ikuskizunaren estreinaldi mundiala, Emilio Aragón artista polifazetikoaren musikarekin, gainera, berak zuzendu du Bilbao Orkestra Sinfonikoa; koreografia, berriz, Ricardo Cuérena izan da, eta protagonista Tamara Rojo, Londresko Royal Balletekoa, dantza figurarik onenetakotzat jotzen dena gaur egun.

El Teatro Arriaga ofreció a su público un acontecimiento artístico de primera magnitud. Se trata del estreno mundial de "Blancanieves" espectáculo de danza con música del versátil artista Emilio Aragón, quién además dirigió la Bilbao Orkestra Sinfonikoa BOS, coreografía de Ricardo Cué, y protagonizado por Tamara Rojo del Royal Ballet de Londres y considerada como una de las figuras más importantes de la danza en la actualidad.



# LAUAXETA GAURKO BEGIZ

azaroa 8 noviembre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Aurten bete da Gerra zibilean fusilatu zuten Esteban Urkiaga "Lauxeta"ren jaiotzaren mendeurrena, hori dela eta, hainbat omenaldi egin zaizkio euskal olerkaritzaren berritzaile izan zenari. Gure Antzokiak bat egin du haiekin eta kontzertu bat eskaini du zuzenean; kontzertu horretan, Mikel Urdangarinek, Garik, Xavier Montoiak, Anje Duhaldek, Rafa Ruedak, Txuma Murugarrenek, Xabi Strubellek, Pettik, Javier Muguruzak, Francis Diezek, Doctor Deseok eta Eñaut Elorrietak eskaini zioten disko-liburuko kantak interpretatu ziren.**
**Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Arloak antolaturik.**

Han sido varios los homenajes que durante este año se ofrecieron en conmemoración del centenario del nacimiento del renovador de la poesía en euskera, Esteban Urkiaga "Lauaxeta", fusilado durante la guerra civil. Nuestro teatro se unió a ellos con un concierto en directo donde se interpretaron las canciones del libro-disco que le dedicaron Mikel Urdangarin, Gari, Xavier Montoia, Anje Duhalde, Rafa Rueda, Txuma Murugarren, Xabi Strubell, Petti, Javier Muguruza, Francis Diez, Doctor Deseo y Eñaut Elorrieta.
Organizado por el Área de Cultura y Euskera del Ayuntamiento de Bilbao.



# DONNA LEÓN

urria 10 octubre

HITZALDIA CONFERENCIA

**Musikari eskainitako bi egun horien atariko gisa, Donna Leon idazleak Haendeli eta bere musikari buruzko hitzaldi bat eman zigun Bidebarrietako Liburutegian, izan ere, polizi eleberrien idazle famatuenetako bat ez ezik, musikari honen ezagutzaile eta zale handia ere bada, bestalde, "Armonio" obraren grabazioan (Virgin) eta Göttinger Haendel Festivalerako grabatutako "Readings with music" obran agertzen diren testuen egilea da.**

Como preludio a dos magníficas jornadas musicales, nos ofreció en la Biblioteca de Bidebarrieta nos ofreció una conferencia sobre Haendel y su música Donna Leon, quién además de una de las más famosas escritoras de novela policíaca, es una gran amante y conocedora del músico y autora de los textos que acompañan la grabación de "Armonio" (Virgin) y de "Readings with Music" para el Göttinger Haendel Festival.

FUNDACIÓN BILBAO 700 - III MILLENIUM FUNDAZIOA

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



## RODELINDA LOTARIO

OPERA BARROKOAÓPERA BARROCA

urria 11 - 12 octubre

**Alan Curtisek 1992. urtean sortu zuen bakarlari-kantariz eta instrumentistez osatutako Il Complesso Barocco taldea, eta taldearen buru delarik, G. F. Haendelen bi opera eskaini zizkigun kontzertu dramatizatuaren bertsioan elkarren segidako bi egunetan. "Rodelinda, Regina de' langobardi", 1725. urtean estreinako aldiz emana, eta "Lotario" 1729. urtekoa; zaleak oso gutxitan izaten du Haendel bezalako autore jori baten bi obra jarraian ikusteko parada, eta oraingo honetan espezialista handi baten bertsioan gozatu ahal izan ditugu.**

Alan Curtis al frente de Il Complesso Barocco, grupo de solistas cantantes e instrumentistas, que fundara en 1992 nos ofreció en versión de concierto dramatizado dos óperas de G. F. Haendel, en dos fechas sucesivas. "Rodelinda, Regina de' Langobardi" estrenada en 1725 y "Lotario" en 1729, dos obras del extensísimo catálogo de su autor a las que raramente tiene acceso el aficionado y que pudimos disfrutar en la versión de un gran especialista.

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



## JULIO BOCCA

DANTZADANZA

azaroa 16 - 20 noviembre

**Julio Bocca Argentinako dantzaria gaur egungo dantza munduko artistarik garrantzitsuenetako bat da. American Ballet Theatreko lehen dantzaria da 1986. urtetik, eta artista gonbidatua izan ohi da munduko konpainia ospetsuenetan; 1990. urtean Ballet Argentino konpainia sortu zuen. Harekin itzuli da Bilbora eta eskaini duen programa bikoitza oso gogoko izan du publikoak: "El hombre de la corbata roja" eta "The River".**

El bailarín argentino Julio Bocca es hoy día uno de los artistas más importantes del mundo de la danza. Primer Bailarín del american Ballet Theatre desde 1986, artista invitado habitual a las compañías más prestigiosas del mundo y fundador en 1990 de su propia compañía Ballet Argentino. Con ella visitó de nuevo Bilbao para ofrecernos un doble programa que entusiasmó al público: "El hombre de la corbata roja" y "The River".



## DIEGO EL CIGALA

**azaroa 29** noviembre

**ESZENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

**"Lágrimas negras" lanean boleroaren interpretazio berritzaile bat arrakasta handiz egin ondoren, Diego "el Cigala" flamenkora itzuli da, eta Picassori omenaldi bat eskainiz itzuli da, hain zuzen ere. Flamenko kantari handia bakarka egindako bere bosgarren diskoa aurkeztera etorri da gurera: "Picasso en mis ojos"; bertan musika jarri die Albertiren poema batzuei eta Javier Ruibal, Javier Krahe, Carlos Chaouen edo Juan Antonio Salazar idazleek Picassoren obretan inspiraturik idatzitako hitzei.**

Tras su exitosa reinterpretación del bolero en "Lágrimas negras", Diego "el Cigala" ha vuelto al flamenco y lo ha hecho homenajeando a Picasso. El gran cantaor nos visitó para presentar su quinto disco en solitario, "Picasso en mis ojos", donde pone música a algunos poemas de Alberti y a letras de Javier Ruibal, Javier Krahe, Carlos Chaouen o Juan Antonio Salazar, inspiradas en obras de Picasso.



## EXTRAS

**abendua 1 - 2** didiembre

**ANTZERKIA**TEATRO

**Maskarada konpainia Bilbon sortu zen 1980. urtean, eta Carlos Panera du zuzendari; euskaraz eta gaztelaniaz eskaini digu Marie Jones idazlearen "Stones in his pokets", nazioartean arrakasta itzela izan duen lana. Hollywoodeko filmaketa-talde batek herrixka bat inbaditu du superprodukzio bat egiteko, eta estra lana egiteko txandaren zain dauden bitartean bertako herritar bik beren begirada barre-eragile eta garratza jartzen dute inguruan dituzten gauza guztietan.**

La compañía Maskarada nacida en Bilbao en 1980 y dirigida por Carlos Panera nos ofreció en euskera y castellano la obra de Marie Jones, "Stones in his pockets", que ha cosechado un gran éxito internacional. Mientras esperan su turno para participar como extras en una superproducción "holywoodense", cuyo equipo ha invadido la aldea irlandesa donde viven, dos de sus habitantes dirigen su hilarante y corrosiva mirada a cuanto les rodea.



## CÔTÉ COUR...CÔTÉ JARDIN **DANTZA**DANZA

**abendua 3** didiembre

**Maritzuli euskal dantza konpainia 1996. urtean sortu zuen bere zuzendari Claude Iruretagoyenak, eta oraingo honetan "Côté cour... Côté jardin" izeneko lana eskaini digu. Euskal Herriko dantzaren historiari buruzko ikuskizun honetan agerian jartzen dute euskal dantzak izan zuen eragina balet preklasikoko hizkuntzaren eta errepertorioaren sorreran, izan ere, hainbat elementu bereganatu zituen, esate baterako, "pas de basque" deritzana eta "euskal jauzia".**

La compañía de danza vasca Maritzuli Konpainia, fundada en 1996 por su director Claude Iruretagoyena, nos ofreció "Côté cour... Côté jardin". Un espectáculo sobre la historia de la danza de Euskal Herria, donde se muestra la influencia que ésta tuvo en la creación del lenguaje y el repertorio del ballet preclásico con la incorporación de elementos como el "pas de basque" y el "euskal jauzia".

## BALLET FLAMENCO SARA BARAS **DANTZA**DANZA

**abendua 6 - 11** diciembre

**Bere gaztetasuna gorabehera, Sara Baras gaurko dantza flamenkoaren pertsona ospetsuenetako bat da, kritikak, publikoak eta jasotako sari ugariek egiaztatzen duten bezala. Oraingo bisita honetan "Sueños" izenburua daraman lana eskaini zigun; ikuskizun honen argumentua sentimenduek baino ez dute osatzen, eszenografia argiek baino ez, eta musika beste laguntzarik ez dute, emozioa eta dantzarako grina askatzeko.**

A pesar de su juventud, Sara Baras es una de las más destacadas figuras del baile flamenco de la actualidad como confirman la crítica, el público y los numerosos galardones que ha recibido. En esta nueva visita nos ofreció "Sueños", un espectáculo sin más argumento que los sentimientos, más escenografía que la luz, ni más apoyo que la música, para dar rienda suelta a su emoción y su pasión por el baile.







## LA REINA DE LAS NIEVES

abendua 13 - 15 didiembre

**GAZTETXOENTZAKO ANTZERKI MUSIKALA**
TEATRO MUSICAL PARA LOS MÁS JÓVENES

Joan den urtean ospatu genuen Hans Christian Andersen-en jaiotzaren bigarren mendeurrena, eta horren karietara Eskola Kanpainan eskaini genuen Érase Producciones taldearen muntaia musikal hau. Aktoreak, panpinak, proiekzioak eta itzalak konbinaturik, Danimarkako idazlearen ipuin famatuenetako batzuk biltzen dituen errealitate eta fantasia nahasketa bat eskaini ziguten.

El pasado año celebramos el segundo centenario del nacimiento de Hans Christian Andersen, ofreciendo en Campaña Escolar este montaje musical de Érase Producciones. Mediante una combinación de actores, muñecos, proyecciones y sombras nos transmitieron la mezcla de realidad y fantasía que recorre varios de los más conocidos cuentos del autor danés.



## MARÍA BAYO

abendua 15 didiembre

**KONTZERTUA**CONCIERTO

María Bayo soprano nafar handia maiz izaten dugu geure agertokian, haren jarraitzaile ugarien pozerako. Oraingo honetan "Al Ayre Español" orkestrak lagundurik etorri zaigu. Orkestra hau 1988. urtean sortu zuen bere zuzendariak, Eduardo López Banzo klabezin-joleak. María Bayok honako hauen lanak eskaini dizkigu bere programan: Haendel, Boccherini eta José de Nebra, "Haendel espainiarra" deritzotena.

La gran soprano navarra María Bayo, para gran alegría de sus muchos seguidores, es una habitual de nuestro escenario. Acompañada en esta ocasión por la Orquesta "Al Ayre Español", agrupación fundada en 1988 por su director y clavecinista Eduardo López Banzo nos ofreció un programa que incluía obras de Haendel, Boccherini y José de Nebra, conocido como el "Haendel español".

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



## OTEhITZARi BIRAKA

DANTZADANZA

abendua 16 didiembre

**Hainbat diziplina bateraturik, dantza, musika, bideoa, poesia... eta guztien gainetik Jorge Oteizaren hitzak eta gogoa gailentzen direlarik, Tanttaka Teatroa taldeak eta Kubai Dantza Konpainiak euskaldun eskultore, poeta eta idazleari eskainitako ikuskizun berritzaile hau taularatu zuten. Gidoia eta zuzendaritza Mireia Gabilondorenak dira, koreografia Jon Mayarena, musika M. Urdangarinena, B. Mendizabalena, M. F. Krutzagarena eta R. Ruedarena, eta horiez gain, euskal kulturaren munduko hainbat pertsona ospetsuren lankidetza ere izan du.**

Combinando varias disciplinas, danza, música, video, poesía..., pero destacando sobre todas ellas las palabras y el espíritu de Jorge Oteiza, Tanttaka Teatroa y la Compañía de Danza Kukai nos ofrecieron este innovador espectáculo dedicado al escultor, poeta y escritor vasco. Con guión y dirección de Mireia Gabilondo, coreografía de Jon Maya, música de M. Urdangarin, B. Mendizábal, M. F. Krutzaga y R. Rueda y la colaboración de destacadas figuras de la cultura vasca.



## KLONK

DANTZADANZA

abendua 17 diciembre

**Addictos break-dance taldeak eta Logelak, ikus-entzunezkoak ekoizten dituen multimedia taldeak, gaur egungo ikuskizun bat sortu dute bat eginik: "Klonk". Ikuskizun honetan dena adierazten dute break-dance dantzen bitartez, gaur egungo soinuak eta paisaia digitalek osatutako hainbat eszenografia lagun dituztela; proiekzioak gorpuztu egiten dira agertokian eta pantailaren gune lautik irteten dira.**

El grupo de break–dance Addictos y el grupo multimedia Logela, creadores sonoros y visuales, se unieron para crear un nuevo espectáculo contemporáneo llamado "Klonk". En él todo se expresa mediante el baile break–dance sonorizado con canciones actuales y distintas escenografías de paisajes digitales, donde las proyecciones toman cuerpo abandonando el espacio plano de una pantalla.



## MARLANGO

ESZENA IREKIAESCENA ABIERTA

abendua 19 didiembre

Leonor Watling aktore bikaina ez ezik, kanta-idazle eta kantari aparta ere bada, eta Marlango taldea osatu du Alejandro Pelayo piano-jolearekin eta Oscar Ybarra tronpeta-jolearekin batera. Kaleratu zuten lehenbiziko albuma urteko salduenetako bat izan zen, 100.000 kopia baino gehiago, eta Eszena Irekia sailean eskaini zuten zuzeneko emanaldia hurbila, hunkigarria eta oso txalotua izan zen.

La extraordinaria actriz Leonor Watling es además una excelente letrista y cantante, que en unión del pianista Alejandro Pelayo y el trompetista Oscar Ybarra ha formado el grupo Marlango. Su álbum de debut estuvo entre los mas vendidos del año con más de 100.000 copias y en su actuación dentro del apartado Escena Abierta dejaron constancia de un directo cercano, emotivo y muy aplaudido.





## JOAQUÍN ACHÚCARRO

KONTZERTUA
CONCIERTO

abendua 20 didiembre

1959. urtean Liverpool-eko Nazioarteko Piano Lehiaketa irabazi zuenetik, musika munduaren ateak zabaldu zaizkio eta kontzertu areto ospetsuenetan jardun du etengabe, bakarka zein orkestra onenak eta zuzendari famatuenak lagun dituela. Bilbotar hau munduko piano-jolerik onenetakoa da, zalantzarik gabe, eta Arriaga Antzokian bere arteaz berriz ere gozatu izana atsegina eta ohorea izan da guretzat.
Steinway isats pianoa inauguratzeko kontzertua, BBKren laguntzarekin.

Desde que en 1959 ganase el Concurso Internacional de Piano de Liverpool, abriéndosele las puertas del mundo musical, Joaquín Achúcarro no ha dejado de actuar en las salas de concierto más prestigiosas, sólo o acompañado por las mejores orquestas y con los directores más afamados. Este bilbaíno es sin duda uno de los mejores pianistas del mundo y volver a disfrutar de su arte en el Arriaga fue un placer y un honor.
Concierto inauguración del piano de cola Steinway patrocinado por BBK.

bbk





## CIA. NACIONAL DE DANZA

**DANTZA**DANZA

**abendua 22 - 23** didiembre

**Nacho Duatoren zuzendaritzapean, Dantza Konpainia Nazionala berriz agertu da Arriaga Antzokian bere betiko publiko kartsuaren aurrean. Oraingo honetan, Konpainiarentzat berariaz sortutako hiru lan berri eskaini dizkigute; aurrena Jacopo Godani koreografo italiarrarena da, bigarrena Örjan Anderson suediarrarena, eta azkena Nacho Duatorena berarena W. A. Mozarten musikarekin.**

La Compañía Nacional de Danza, bajo la dirección de Nacho Duato, volvió a presentarse ante el fervoroso público que llena el Arriaga en cada una de sus visitas. En esta ocasión nos ofrecieron tres obras nuevas creadas específicamente para la compañía; del coreógrafo italiano Jacopo Godani la primera, del sueco Örjan Andersson la segunda y del propio Nacho Duato con música de W. A. Mozart la última.





## LAS MIL Y UNA NOCHES

**ANTZERKIA**
TEATRO

**abendua/urtarrila 27 - 15** diciembre/enero

**Comediants antzerki taldeak eskainitako irudimenaren emaitza hilezkor honekin, egungo errealitate mingarriaren kontakizun honekin amaitu genuen urte zaharra eta hasiera eman genion urte berriari. Bagdadeko altxorren arpilaketa eta suntsipena, Xerezadek herioa distraitzeko hainbat istorio kontatzen zituen bitartean: abenturak, erotismoa, alegiazko izakiak eta bidaia fantastikoak... Hau da, bada, ikuslea berriz ere limurtzeko abiapuntua, betiereko ipuinon irudimen eta jakituriarekin.**

El Teatro despidió el año y comenzó el siguiente con esta obra inmortal de la imaginación, contada por Comediants desde la dolorosa realidad del presente. El saqueo y la destrucción de los tesoros de aquel Bagdad, donde Scherezade distraía a la muerte contando historias de aventuras, erotismo, seres fabulosos y viajes fantásticos, es el punto de partida para volver a seducir al espectador con la imaginación y la sabiduría de estos cuentos eternos.










ZINEBI

**ZINEBI 2005 - ZINEMA JAIALDIA**
ZINEBI 2005 - FESTIVAL DE CINE

# ZINEBIren 47. EDIZIOA
## 47 EDICIÓN DE ZINEBI

Jaialdiaren 47. edizioaren ebaluazio honek ZINEBIk urtero planteatzen dituen hiru helburu nagusietan oinarritu behar du ezinbestez, alegia: alde batetik, ahalik eta modurik objektiboenean kokatzea nazio zein nazioarteko gure genero berdineko jaialdien artean; beste alde batetik, Bilboko publikorengana hurbiltzea merkatuan nekez eskura daitekeen eskaintza zinematografiko batekin –eta beraz, ikuspuntu zabalago eta kulturalago batetik; eta, azkenik, Euskadiko ikus-entzunezkoen industriari laguntzea.

Oro har, hiru helburu horiek behar bezala bete direla uste dugu. Horrek esan nahi du jaialdi hau, marka-irudi berri bezala 2.000 urtean sortu zena eta laster bere berrogeita hamargarren urteurrena egingo duena, indartu egin dela, eta proiekzio aukera berriak zabaldu zaizkigula, batez ere 2008an ospatuko den berrogeita hamargarren urteurrenari begira. Horrela beraz, lasai eta patxadaz aztertu beharko dugu ospakizun hau hurrengo bi edizioetan.

Gure hiriaren kanpo sustapenari dagokionez, aipa dezakegu edizio honetan izena eman duten 2.573 filmak bost kontinenteetako 91 herrialdetatik etorri direla, hartara bada, baiezta genezake azken bi urteetan ZINEBIk garrantzi handiagoa hartu duela nazioarteko jaialdi gisa, batik bat gugandik urrun dauden esparru geopolitikoetako herrialdeetan, hala nola, Ekialde Urruna, Asia Erdiko Sobiet Batasuneko errepublika ohiak, Sahara azpiko Afrika eta Magreb; izan ere, herrialde hauetatik lan zinez iradokitzaileak iristen zaizkigu, eta gero eta parte-hartze handiagoa dute Lehiaketako Sekzio Ofizialean. ZINEBIren presentzia handiago honek berekin dakar Bilboren izena zabaltzea herrialde horietako zinema hedabideetan eta kultur industrian. Horrela beraz, elkar trukerako eta lankidetzarako aukera berriak irekitzen zaizkigu. Espainiar Estatuari begira, ZINEBI dagoeneko indarturik dagoen ekimen bat dela esan dezakegu. Aurten autonomi erkidego guztietako filmak jaso ditugu, eta aipagarrienak Katalunia, Madril eta Andaluziakoak izan dira. Gure ustez, horrek ere laguntzen du gure hiria erreferente kultural dinamiko bezala bultzatzen, eta nola ez, aukera handi bat da zinemagintzan lehen urratsak eman nahi dituzten zinemagile gazteentzat. Bilboren kanpo sustapenaren alor honi buru eman aurretik, nahitaez aipatu behar ditugu ZINEBIk 2006rako aurreikusi dituen bi kolaborazio

La evaluación de lo que ha significado esta 47 edición del Festival tiene que basarse necesariamente en los tres objetivos principales que ZINEBI se plantea cada año, con los cuales pretendemos situarnos, de la manera más objetiva posible, tanto entre los festivales nacionales e internacionales de nuestro género y características como ante el papel que el Festival debe cumplir en la promoción de nuestra ciudad en el ámbito internacional, en el acercamiento al público de Bilbao de un tipo de oferta cinematográfica -y a la postre, en un sentido más amplio, cultural- generalmente poco accesible en términos de mercado y, por último, en el apoyo decidido a la industria audiovisual del País Vasco.

Nosotros creemos que, en líneas generales, podemos hablar de un cumplimiento satisfactorio de los tres objetivos enunciados, lo que significaría, desde el nacimiento en el 2000 de ZINEBI como nueva imagen de marca de una manifestación cinematográfica próxima a su cincuentenario, que estamos en un período de franca consolidación del Festival, ante el que se abren posibilidades de proyección que, sobre todo de cara a la celebración en 2008 del mencionado cincuentenario, será preciso observar con calma a lo largo de las dos próximas ediciones.

